

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko deialdi publikoaren ebazpena

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko irailaren 29an emandako ebazpena, zeinaren bidez 2020an Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“I. Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2020. urterako (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia).

II. 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarriak (2020ko ekainaren 29ko ALHAO, 72 zenbakia), laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 40.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2020rako udal aurrekontuko 08.10.4331.4.7104 partidaren kontura.

III. Deialdiaren oinarrietan eskabideak aurkezteko eman zen epea amaitu zelarik, idazkia egin zuten Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariek, 2020ko irailaren 23ko dataz, zeinean jakinarazten baitzuten guztira hamahiru eskabide aurkeztu zirela; horietako bat epez kanpo aurkeztu zen, eta beste batek ez zituen deialdiaren betekizun formalak betetzen. Gainerako hamaika eskabideei dagokienez, bost 2.1 ildoan sartzan dira (iraunkortasuna sustatzen duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatzea) eta sei, 2.2 ildoan (biltzarrak antolatzen dituzten enpresei edo biltzarren antolatzaile profesionaleri zuzendutakoa, biltzar-produktu edo -esperientziak sortu eta garatzeko, edo Vitoria-Gasteizera biltzar-jarduerak erakarri edo halakoak dinamizatze, edo horiek hobetzeko), 5. oinarrian ezarritakoaren ildotik.

Eskabide horiek aztertu ondoren, hautatze eta jarraipen batzordeak 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu ziren, eta balioetsi. Deialdiko betekizunak betetzen zirela egiaztatu eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta horien lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, batetik, jasotako eskabideetako bi ezesteko, betekizun formalak ez betetzeagatik, eta bestetik, hamaika laguntza emateko guztira (bost 2.1 ildoan eta sei 2.2 ildoan), bakoitzak lortutako puntuazioa aintzat hartuta.

Deialdian ezarritako prozedurarekin bat etorritik, eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko ekainaren 12ko erabakiz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetu zaio eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta hautatze eta jarraipen batzordeak egindako proposamena ikusirik, hau ebatzi du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak:

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren oinarrietako betekizunak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, 2020an Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko udal programaren barruan eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea ondorengoei:

Zenbakia	I.F.Z. / N.A.N.	Bete ez den oinarria	Ez emateko arrazoiak
1	B01578251	6	Epez kanpo aurkeztutako eskabidea
2	16285970S	6	Pertsona berak bi eskaera aurkeztu ditu
Guztira bi eskabide ukatuta			

Bigarrena. Hasiera batean deialdiko betekizunak betetzen dituztela egiaztatu eta aurkeztutako eskabideak balioetsi eta lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren (9. eta 10. oinarriak), Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko laguntza hauek ematea, egindakoa justifikatzeko baldintzarekin; horrela, deialdiaren diru-zuzkidura agortuko da:

2.1. ildo: iraunkortasuna sustatzen eta bisitariei produktu turistiko berezia eskaintzen lagunduko duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatzea.

Zenbakia	I.F.Z./N.A.N.	Lortutako puntuazioa	Diru-laguntza jaso dezakeen inbertsioa	Diru-laguntza teorikoa
1	44680193W	39,5	10.092,00 euro	5.000,00 euro
2	B01577469	33,5	9.500,00 euro	4.693,09 euro
3	B01459833	33,5	6.400,00 euro	3.731,60 euro
4	B01501428	28	6.792,00 euro	3.840,32 euro
5	16263064V	26,5	4.628,93 euro	2.734,98 euro
Diru-laguntza teorikoaren zenbatekoak guztira				19.999,99 euro

2.2. ildo: biltzar-produktu edo -esperientziak sortu eta garatzea, edo Vitoria-Gasteizera biltzar-jarduerak erakarri edo halakoak dinamizatzeko ekintzak.

Zenbakia	I.F.Z./N.A.N.	Lortutako puntuazioa	Diru-laguntza jaso dezakeen inbertsioa	Diru-laguntza teorikoa
1	B01540137	33,5	13.017,52 euro	3.621,62 euro
2	16285970S	31,5	16.000,00 euro	3.405,41 euro
3	B01157882	30,5	21.255,00 euro	3.297,30 euro
4	B01538388	30	24.000,00 euro	3.243,24 euro
5	B01334192	30	7.275,00 euro	3.243,24 euro
6	B01321090	29,5	20.000,00 euro	3.189,19 euro
Diru-laguntza teorikoaren zenbatekoak guztira				20.000,00 euro

Hirugarrena. Emandako laguntzen batuketari dagokion zenbatekoa (39.999,99 euro) 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 08.10.4331.4.7104 partidaren kontura jasota uztea (3. oinarria), eta onuradunei horien ehuneko laurogei ordain dakien onartzea (12. oinarria).

Laugarrena. Udalaren Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariak izendatzea turismoa eta biltzarrak sustatzeko proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Bosgarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Seigarrena. Laguntzaren eskatzaile guztiei ebazpena jakinaraztea, eta ohartaraztea honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dutela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta. Aukeran, horren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da deialdia onetsi duen organoari berari zuzendurik, hilabeteko epean, iragarki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta. Errekurtso hori ezesten bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko

administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean errekurtsua ezesteko ebazpenaren jakinarazpena espresua bada, edo administrazioaren isiltasunak ondorioak dituen egunaren biharamunetik aurrera ezespena ustezkoa bada.”

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 7an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria*
LEIRE GÓMEZ ALCALÁ